

3.10.7. UDALERRIAK. HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTEA AHALDUNTZEA. DIRULAGUNTZAK.

DIRULAGUNTZAK

DEIALDIA, HERRITARREN PARTAIDETZAREN ESPARRUKO HERRITARREN ELKARTE ETA ENTITATEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO

2018an, hainbat elkartek aurkeztutako 115 proposamenek 545.000 euro jaso zituzten herritarren partaidetzaren arloko laguntzen deialdiaren bidez. Deialdian, dirulaguntzak hiru epigrafe-tan bereizten dira, eta zenbatekoak ere aldatzen dira horietako bakoitzean:

A epigrafea: 100.000 euro. 19 proiektu diruz lagundu dira. Auzo-elkarteek, kultur elkarteek, jai-batzordeek eta kultur koordinakundeek aurkeztutako proiektuak hirietako auzoetako festak, jai herrikoiak zein izaera komunitarioko gizarte- eta kultura-ekitaldiak antolatzeko.

B epigrafea: 295.000 euro. 47 proiektu diruz lagundu dira. Aisialdiaren eta denbora librearen esparruan herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea sustatzearen alde lan egiten duten entitate edo elkarteek aurkeztutako proiektuak dira, jarduera iraunkor eta/edo puntualen bidez. Gizarte-partaidetza, herritar aktiboak eta boluntario-lana, gizarte-ehunaren koordinazioa eta sare-lana, lurraldeko bizilagun, talde eta elkarten arteko informazioa eta komunikazioa, eta hedapena eta sentsibilizazioa sustatuko dituzten proiektuak, zeinak ekintza berritzaileak martxan jarritz, proiektuei egokitutako teknologia garatuz eta gizarte-aldaketa ehun sozialetik aldatzeko praktika onak erabiliz egiten baitira.

C epigrafea: 50.000 euro. 19 proiektu diruz lagundu dira. Kultura herrikoia sustatzeko, sortzeko eta hedatzeko proiektu eta jarduerak, Nafarroaren eta eskualdeko beste komunitateen kultur aniztasunaren ordezkari diren entitateek aurkeztuak, hori dena topaketa kulturala eta elkarbizitza lortzeko, aisialdiaren alorrean (gizarte eta kultur, gizarte eta hezkuntza eta gizarte eta komunitatean), lurraldeko gizarte-ehunaren parte-hartzetik abiatuta eta herritar guztiei irekia. Partaidetza-, harrera-, sentsibilizazio-, sustapen-, sormen- eta hedapen-jarduerak, kultura- eta jatorri-aniztasuna sustatzekoak, elkarbizitza, elkarbizitza eta ezberdintasunaren errespeturako estrategia gisa, jatorri ezberdinetako pertsonen eta kolektiboen parte hartzea eta ahalduntzea bultzatuz udalerraren bizitzan.

D epigrafea: 100.000 euro. 30 proiektu diruz lagundu dira. Herritarren parte-hartzea eta adinekoen ahalduntze soziala sustatzen dituzten jarduketak. Aisialdiaren alorrean (gizarte eta kulturakoa, gizarte eta hezkuntzakoa eta gizarte eta komunitatekoa), adinekoen bizi-kalitatea eta ongizatea sustatzearen alde lan egiten duten entitate edo elkarteek aurkeztutako proiektuak. Adinekoen parte-hartzea eta zahartze aktiboa sustatzea xede duten elkarten kasuan, aintzat hartuko dira helduekin eta adinekoekin egitekoak diren jarduera zehatzak.

PRESTAKUNTZA-PROIEKTUETARAKO ENTITATEENDAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

Prestakuntzarako dirulaguntzen deialdia irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeek egin-dako jarduerak udalaren esparrutik laguntzeko tresna bat da: honako hauek sustatzen dituzten jardueri bideratuta: gizarte- eta kultura-animazioa, asoziazionismoa, partaidetza eta komu-nitate-garapena, sormena eta adierazpena, dibertsitate funtzional, sentsoial eta intelektuala, dibertsitate kulturala, dibertsitate sexuala eta genero-nortasuna, koheziketa, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna, gizarte-komunikazioa eta informazioaren eta komuni-kazioaren teknologiak, gazteak dinamizatzea eta informatzea, gizarte-berrikuntza, beste arlo batzuen artean.

Erakunde eskatzaileek prestakuntza-ekintza baterako proiektu bana aurkez zezaketen moda-litate bakoitzean, eta, gehienez 6.000 euro lor zezaketen. 5 proiektu finantzatu ziren, guztira 12.478,18 euroz hornituak.